AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3872

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 4koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Honen bidez, zuzendari beraren 2011ko ekainaren 7ko Ebazpena aldatzen da (ebazpen haren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduak iragarritako hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda onartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduran).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egin zen. Agindu horren 2.1.f) oinarriak ezartzen duenez, hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza orokorra da 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, kasuaren arabera.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2011ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bitartez, aipatutako hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda onartu zen.

Iker Chica González jaunak, Luis Rosado Casas jaunak eta Elisa Alvarez Lopez andreak gorako errekurtsoa jarri zuten aipatutako 2011ko ekainaren 7ko Ebazpenaren kontra.

Baietsi direnez jarritako gorako errekurtsoak hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda aldatu behar da.

Hori dela eta, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda honela aldatzea:

Iker Chica González jauna onartzea aipatutako hautaketa-prozeduran, Maisu-maistren kidegoko Lehen Hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik.

Luis Rosado Casas jauna onartzea aipatutako hautaketa-prozeduran, Maisu-maistren kidegoko Ingeleseko espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik.

Elisa Alvarez Lopez andrea onartzea aipatutako hautaketa-prozeduran, Maisu-maistren kidegoko Gorputz Hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik.

2. artikulua.– Ebazpen hau argitara emango da Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten dituen helbideetan: http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

3. artikulua.– Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 4a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.